Guztiok dakizuenez, martxoaren 1eko hauteskundeek argi islatu dute zein den euskal gizartearen borondatea eta nahia. Ibarretxe lehendakaria buru zuela, Eusko Alderdi Jeltzalea izan zen boto gehien jaso zuen alderdia, 399.600 boto eta 30 eserleku erdietsi baitzituen; alegia, Alderdi Sozialistak baino 80.000 boto gehiago, eta Alderdi Popularrak baino 254.000 boto gehiago.

Alderdien Legeari esker ,-aukera politiko bat legez kanpo utzi baitu-, Alderdi Sozialistak eta Alderdi Popularrak batera 38 eserleku eskuratu dituzte, Eusko Legebiltzarren gehiengo osoa, hain zuzen. Arabako boto bakar batek eta Gipuzkoako ehunka boto gutxi batzuk aukera emango diete euskal gehiengo soziologikoaren kontrako estrategia burutzeko. Espainiako eskuin eta ezkerrak ituna sinatzea erabaki dute nazionalismoa eta Ibarretxe lehendakaria Ajuria Eneatik botatzeko. Geroak erakutsiko du nolako garaiak biziko dituen gure herriak eta gure gizarteak.

Nire aldetik, ez dut Eusko Jaurlaritza utzi nahi lehenago agur esan gabe. 14 urtetan zehar, hasieran Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako zuzendari gisa eta geroago Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusi gisa, Ibarretxe Lehendakariarekin ohore handia izan da niretzat berarekin lan egitea eta Euskadi zerbitzatzea. Zorionez beterik eta poz-pozik partekatu ditut zuen bizipenak euskal etxeetan, eta euskal etxe guzti-guztiak ezagutu ez baditut ere, uste dut antolatutako euskal gizataldeak dituzten herrialde guztiak bisitatu ditudala.

Tokika ikusi dut ahalegin itzelak eginda eutsi diozuela euskalduntasunari: gure kulturari, gure hizkuntzari, gure izaerari,

Como todos conocéis, las elecciones del pasado 1 de marzo han reflejado con nitidez la voluntad y los deseos de la sociedad vasca. El Partido Nacionalista Vasco, con el Lehendakari Ibarretxe a su cabeza, fue la fuerza más votada, logrando 399.600 votos y 30 escaños, es decir, 80.000 votos más que el Partido Socialista y 254.000 votos más que el Partido Popular.

Gracias a la Ley de Partidos, que ha ilegalizado una opción política, el Partido Socialista y el Partido Popular suman 38 escaños, es decir la mayoría absoluta del Parlamento Vasco. Un solo voto en Álava y unos pocos cientos en Gipuzkoa les va a permitir culminar su estrategia en contra de la mayoría sociológica vasca. La derecha y la izquierda españolas, han decidido firmar una alianza para echar al nacionalismo y al Lehendakari Ibarretxe de Ajuria Enea. El futuro dirá qué tiempos nos esperan como País y como sociedad.

A título personal, no quisiera dejar este Gobierno Vasco sin antes despedirme. Han sido 14 años donde, en una primera etapa como Director de Relaciones con las Colectividades Vascas y después, como Secretario General de Acción Exterior con el Lehendakari Ibarretxe he tenido el honor de trabajar con él y servir a Euskadi. He tenido la suerte y el gusto de compartir vuestras vivencias en las Euskal Etxeak y si bien no he podido conocer todas y cada una de ellas, sí creo haber visitado todos los países donde había Colectividades Vascas organizadas.

En cada caso he visto cómo gracias a enormes esfuerzos, habéis mantenido viva la llama de lo vasco: nuestra cultura,

gure baloreei. Elkarrizketa eta harreman pertsonal asko partekatu ditut eta horietan guztietan aukera izan dut gauza asko ikasteko eta izugarri aberasteko giza ikuspegitik. Hori guztia zuen eskuzabaltasunari eta tolerantziari esker izan da. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkizuet zuen eroapenarengatik eta jaso ditudan ekarpen guztiengatik.

nuestro idioma, nuestra personalidad, nuestros valores. He compartido muchas conversaciones y contactos personales, donde he tenido la suerte de aprender mucho y enriquecerme enormemente desde el punto de vista humano. Todo esto ha sido posible gracias a vuestra generosidad y tolerancia. Por ello, quisiera agradecer vuestra paciencia y todas las aportaciones recibidas.

Era berean, urte guzti hauetan hutsik egin badut barkamena eskatu nahi dizuet.

De la misma forma, quisiera pedir disculpas por los errores que haya podido cometer a lo largo de estos años.

Bihotz, bihotzez, mila esker guztioi eta besarkada bero bat.

**Iñaki AGUIRRE ARIZMENDI**
**Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusia**
**Secretario General de Acción Exterior**